



ERMUKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE ERMUA

18. Ordenantza Fiskala

Udal instalazio eta ondasunak erabiltzeagatiko eta udal merkatuan zerbitzuak emateagatiko tasa

I. XEDAPEN OROKORRA

1. ARTIKULUA

Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak araupetu dituen abenduaren 16ko 2005/9 Foru Arauaren 21. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, Udalaren Ondasun eta Instalazioak Erabiltzearen, Udal Azokaren Zerbitzuak Egitearen eta, era berean, herri-bidean Udal Kioskoak Erabiltzearen ziozko Tasa ezarri da.

II. ZERGA EGITATEA

2. ARTIKULUA

Zerga-egitatea Udal Azokako lokalen gozamina eta aprobetxamendua eta haren zerbitzuak erabiltzea da, bai eta herri-bidean udal-kioskoak erabiltzea ere.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. ARTIKULUA

Ordenantza honetan araupetutako tasa ordaindu behar dute saltokien lizentzia jasotzen duten pertsona edo erakundeek, Udal Azokaren zerbitzuen onura jasotzen dutenek edo zerbitzua eragiten dutenek.

IV. ZERGA OINARRIA

4. ARTIKULUA

Tasaren oinarria Azokako saltokiaren jardueraren edo haren erabileraren arabera izango da.

V. KUOTA

5. ARTIKULUA

1. Herri-bideetako udal-kioskoak erabiltzeagatiko tasaren hiruhileko tarifak honako hauek izango dira:

KONTZEPTUA	EUROAK
Bide publikoko kioskoen tasa, kioskoarengatik	41,65

2. Udal-ondasun eta -instalazioak erabiltzeagatiko eta udal-merkatuan zerbitzuak emateagatiko tasaren hileko tarifak honako hauek izango dira:

KONTZEPTUA	EUROAK
1. TARIFA. SALMENTA-POSTU FINKOAK Modulu bakoitzeko	234,70
2. TARIFA. BILTEGIA ALOKATZEA Biltegiko	92,05
3. TARIFA. PRODUKTUAK SUSTATZEKO JARDUERAK Merkatuko espazioa 12 m ² -ko eta eguneko modu zehaztugabearen erabiltzen duten jarduerak.	49,95

VI. KUDEAKETA ETA BILKETA

6. ARTIKULUA

1. Urtero errolda bat gertatuko da eta zerrenda horretan ordaindu behar duten pertsonen izenak eta zerga-helbideak erasoko dira; halaber, testu horretan saltoki finkoen oinarriak eta emaitzako tarifak adieraziko dira.

2. Errolda hori udaleko organo eskudunak onetsiko du eta jendaurrean azalduko da erreklamazioak egitearen ondoreetarako.

7. ARTIKULUA

1. Ordenantza honen bidez araupetu den tasa ordaintzeko beharrezana zerbitzugintza hasi denetik edota udal-instalazioak edo –ondasunak erabiltzen hasi direnetik sortuko da.

2. Tasa horren ordainketa hiruhilero egingo da. Alabaina, eguneko tarifak ordainagiri edo txartelaren bidez kobratuko dira.

3. Altak eskabidea aurkeztu eta hilabetera izango ditu ondorioak; bajak, berriz eskatzen den dataren hurrengo hiruhilekoan.

4. Udal-administrazioak ordainketa bankuko helbideratzearen bidez egitea ezar dezake, aurrez ordaindu behar duena ados badago.

VII. AZKEN XEDAPENA

Udal Azoka Zerbitzuaren ziozko Tasa araupetu duen Zerga Ordenantza 2026ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean, behin betiko onetsi eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean 2025eko abenduaren 31ko 249. alean argitaratu eta gero, eta halaxe egongo da aldaraztea edo indargabetzea erabaki arte.